

## KANALAK

### Online bidezko kanalak:

Web orrialdea→ Web orrialdea wordpresesen sortuko da eta 2.000€-ko kostua izango du. Web orrialdean gure zerbitzuetara harpidetuta dauden jatetxe eta tabernen menuak agertuko dira eta bezeroek gure web orrialdetik eskatu ahal izango dituzte jatetxe eta tabernen produktuak. Bezeroek eskari bat egiterakoan inkesta bat egiteko aukera edukiko dute eta honeri esker enpresaren teknikoek jakingo dute zer hobetu web orrialdea bezeroentzat erosoagoa izateko.



Instagrameko, Facebookeko eta Twitterreko profila→ Gaur egun instagram, Facebook eta Twitter sozietateak gehien erabiltzen dituzten sare sozialak dira. Profil hauen sorrera doakoa izango da eta profil hauetan gure zerbitzuen berri emango diegu bezeroei eta gure zerbitzuetara harpidetuta dauden jatetxe eta tabernen informazio agertuko da.



## Publizitatea eta off-line komunikazioa:

Jatetxe eta tabernetako publizitatea→ Gure zerbitzuetara harpidetuta dauden jatetxe eta tabernetan gure zerbitzuen berri emango zaie taberna eta jatetxe horien bezeroei, hortaz bezeroak beraien ohiko tabernan kontsumitu ahalko dute modu erosoago batean.

Buzoietako publizitatea→ Publizitate modu tradizional bat da, banatuko ditugun foiletoren kostua 2.000€koa izango da.



## Distribuzio kanalak:

Argi dago distribuzio kanalak droiak izango direla. Hauei esker bezeroen etxeetara modu azkar batean bidali ahal izango ditugu jatetxe eta tabernetako produktuak; eta ingurumena kutsatu gabe. Gainera bezeroak erosotasun handiagoz kontsumitu ahalko dituzte tabernen eta jatetxeen produktuak.

